

# 1- IKUSI AURRETIK

## 1.1 Kirolaria ala kirolzalea

Kirolzaletasunari buruzko kale-inkesta bat egin dute eta hementxe dituzu hainbat erantzun. Irakurri eta erabaki zein den zuretzat hurbilena:



Gaztetan futbolean nahiko ona nintzen baina belaunean min hartu nuen. Orain futbolzalea naiz, athleticzale amorratua.

Gaztetan futbolean nahiko ona nintzen baina belaunean min hartu nuen. Orain futbolzalea naiz, athleticzale amorratua.

Mendi-maratoia eta antzekoak zaletasun berriak dira. Mendia ez da korrika egiteko, patxadaz ibiltzeko baizik.

Txirrindularia naiz. Zalea, ez profesionala. Hala ere, astero bizpahiru aldiz ateratzen naiz errepidera lagunekin.

Kaskoak jantzi eta gimnasioan izerdia botatzea gustatzen zait.

Padelzaleak gara kuadrillan. Larunbatero joaten gara lau lagun elkarrekin.

Ni korrika egitera ia egunero ateratzen naiz. Ezin dudanean, umorea aldatzen zait

Triatloia oso proba gogorra da. Hasiberria naiz eta ikaragarri gustatzen zait, nahiz eta asko entrenatu behar dudana.



Erantzun galderei eta adostu:



- Zu kirolzalea al zara?
- Eta kirolaria?
- Azaldu bikotekideari zure kirolzaletasuna zertan den. Erabaki zein den bietatik zaleena. Zu ala bera?

## 2- IKUSI BITARTEAN

### 2.1 Gogor entrenatzen

Erantzun galderei bideoaren lehen zatia ikusi bitartean:

Nor entrenatzen da maratoirako?

- Amaia.
- Josu.
- Amaia eta Josu.

Aurtengoa al da lehen maratoia?

- Ez.
- Bai.

Zer egin zuen iaz Amaiak?

- Oso ondo bukatu zuen lasterketa.
- Oso nekatuta bukatu zuen froga.
- Sei hilabetez entrenatu zen.

Konparatu erantzunak lagunarekin; zati hori berriz ikusi, nahi baduzue.

### 2.2 Amaiaren eskaera, gonbidapena...

Irakurri taulako esaldiak. Adierazi ideia hauek egia ala gezurra diren bideo osoa ikusi bitartean.

	Egia	Gezurra
Josuk bazekien Amaia maratoilaria zela		
Amaiak entrenatzera gonbidatuko du Josu		
Josuk onartu egingo du Amairen gonbidapena		
Josu korrikalaria izan zen gazteago zenean		
Maratoian Josu ez zaio Amaiari laguntzera joango		

## 3- IKUSI ONDOREN

### 3.1 Hizkuntzari erreparatzen



#### DENBORAZKO BALIABIDEAK:

Bi ekintza **ALDI BEREAN** gertatzen direnean:

#### Aditz lag. -(e)N BITARTEAN

- Zapatilak aldatzen dituzun bitartean, nik garagardo bat hartuko dut.
  - Zuk korrika egiten duzun bitartean, ni bizikletaz joango naiz.
- Gaztelaniazko denborazko mientras que.... egituraren ordaina da.
- Kontuz: Kontrastea** adierazteko ere erabiltzen da gaztelaniaz. Euskaraz ez.
- En español hay tildes mientras que en euskera no.
  - \*Gaztelaniaz tildeak dauden bitartean euskaraz ez.
  - Gaztelaniaz tildeak daude. Euskaraz, berriz, ez.



### 3.2 Bi gauza batera egiten dugunean


  Irakurri pasarte hau eta azaldu gertatzen dena “bitartean” egitura baliatuz.

— Aizu, etorriko zara nirekin entrenatzera? Ikusi dut ohitura osasuntsuak hartzen hasi zarela.

— Ezta pentsatu ere! Bueno, akaso bai: zu korrika eta ni bizikletaz.



— Ados! Baina gero ez gelditu atzean. e!

    3.3. Zenbat gauza egiten dituzu zuk batera?

 Presaka bizi gara eta askotan bi edo hiru gauza batera egin behar izaten ditugu, denbora aurrezteko. Pentsatu eta idatzi zure eguneroko bizitzan batera egiten dituzun ekintzak zein diren.

Adibidez:



- Xurgagailua pasatzen dudana bitartean musika entzuten dut.
- Plantxatzen dudana bitartean telebista ikusten dut.

  Egin zerrenda bakarka eta elkartu ikaskide batekin. Galdetu berari ea zer apuntatu duen eta talde handian kontatu: zuk ikaskidearena eta ikaskideak zurea.

Adibidez:

- Josunek, xurgagailua pasatzen duen bitartean musika entzuten du.
- Mikelek, plantxatzen duen bitartean telebista ikusten du.



  Bukatzeko, talde handian, erabaki zein diren zuen taldean batera egiten d(it)uzuen ekintza-bikoterik bitxiena(k).